Remiro Esnoz alkateak hartu du hitza eta jakinarazi du batxilergoko eta erdi-mailako ikasleen garraio-zerbitzuaren lizitazio-prozesua egin ondoren, eskaintza hauek aurkeztu direla:

1.- Josu Etxanobe Arrieta eta Pedro Miguel Ernaga Esnoz (1. Lotea)

2.- Eugenio Diez S.A. – EDSACAR (1. Eta 2. Loteak)

Ikusirik aurkeztutako dokumentazioa eta lortutako puntuazioa Osoko Bilkurari adjudikazio hauek proposatu dizkio:

1 Lotea-1,3,6 ibilbideak: Josu Etxanobe Arrietari eta Pedro Miguel Ernaga Esnozi, 51.971,31 eurotan (BEZ kanpo)

2. Lotea – 2,4,5, ibilbideak Eugenio Diez SA-ri (EDSACARS), 55.961,70 eurotan (BEZ kanpo)

Aho batez honakoa erabaki da:

1.- 1. Lotea- 1,3,6 ibilbideak Josu Etxanoberi eta Pedro Miguel Ernaga Esnozi adjudikatzea, 51.971,31 eurotan (BEZik gabe) eta 2. Lotea- 2, 4, 5 ibilbideak Eugenio Diez SA-ri (EDSACARS) adjudikatzea , 55.961,70 eurotan, (BEZ kanpo).

2.- Eskaintzak aurkeztu dituztenei erabaki honen berri ematea eta baldintza pleguaren 15. klausulan aipatzen den dokumentazioa aurkezten dutenean kontratua sinatzea.

4.- 2025eko PLANTILLA ORGANIKOAREN BEHIN BETIKO ONESPENA

Remiro Esnoz alkateak jakinarazi du, plantilla organikoaren hasierako onespena ekainaren 18ko bilkuran egin eta uztailaren 22ko 146. Zenbakia duen Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren, jendaurreko epea iragan dela alegaziorik aurkeztu gabe, eta, beraz, bidezkoa dela 2025eko plantilla organikoa behin betiko onestea.

Aho batez erabaki da 2025eko plantilla organikoa hasiera batean onartzea eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

2025EKO PLANTILLA ORGANIKOA

Lanpostuen zerrenda

1.- Funtzionarioak

1.1.Lanpostua: zerbitzu anitzetako langilea (arduraduna) Plaza kopurua: 1. Sarbidea: Oposizio-lehiaketa murriztua (barne igoera). Maila: D. Lan egoera: jardunean. Mailako osagarria: 15%. Lanpostuko osagarria: 35,77%. Lanaldi osoa. Lanaldiaren luzapenaren osagarria: 10%. Gida baimena B mota.

2.- Langile finkoak.

2.1.Lanpostua: administrari laguntzailea. Plaza kopurua: 1. Sarbidea: oposizio-lehiaketa. Maila: C. Lan egoera: jardunean. Mailako osagarria: 12%. Lanpostuko osagarria: 30,20%. Lanaldiaren luzapenaren osagarria: 10%. Lanaldia 71,44%.

2.2.Lanpostua: administrari laguntzailea. Plaza kopurua: 1. Sarbidea: oposizio-lehiaketa. Maila: C. Lan egoera: jardunean. Mailako osagarria: 12%. Lanpostuko osagarria: 30,20%. %30,20. Lanaldiaren luzapen osagarria %10. Lanaldia: %71,44.

2.3.Lanpostua: Zerbitzu anitzetako Langilea. Plaza kopurua: 1. Sarbidea: oposizio-lehiaketa. Maila: E. Lan egoera: hutsik. Mailako osagarria: 15%. Lanpostuko osagarria: %8,77, Lanaldia %43,63. Astean 16 ordu.

2.4.Lanpostua: Zerbitzu anitzetako Langilea. Plaza kopurua: 1 Sarbidea: oposizio-lehiaketa. Maila: D. Lan egoera: hutsik. Mailako osagarria: 12%. Lanpostuko osagarria: 15%. Lanaldia 100%. Araubide Juridikoa. Lan araubide finko jarraigabea. (Arau osagarriak: lanpostuak izaera jarraigabea dauka eta epealdia apiriletik azarora izanen da, eta egin beharreko lanak mendiaren garbiketa, bazkalekuen kontrola eta zerbitzu anitzetako langile gisa zerbitzuan egon daitezkeen bestelako beharren arabeko lanak. Euskara maila: B2). Euskara maila B2

3.- Orreaga, Auritz eta Erroibarko Udaletako zerbitzu bateratuak.

Lanpostua: Idazkaria: Plaza kopurua: 1. Sarbidea: oposizio-lehiaketa. Hizkuntza eskakizuna C1. Maila: A. Lanpostuko osagarriak: 40%. Bateriaezintasuna 35%. Lanaldi osoa.

Izen zerrenda

Funtzionarioak

Zerbitzu Anitzetako Langilea (arduraduna): Xabier Zia Urrutia.

Lan-kontratadun finkoak:

Administrari laguntzailea Anabel Erneta Erro:

Administrari laguntzailea María José Garralda Zubiri.

Zerbitzu anitzetako langilea. hutsik.

Zerbitzu anitzetako langilea. hutsik.

Lan-araubideko aldi baterako langileak:

Zerbitzu anitzetako langilea (udal eraikinen garbitzailea): Iker Azkarate Leizabe

Zerbitzu anitzetako langilea. Ruben Salon Chic

Administrazio lan araubidean kontratatutako langileen izen-zerrenda:

Ezcurra Irure, M^a Soledad. Bitarteko idazkaria: Egoera: jardunean.

5. 2025-2026 MENDIKO BAZKALEKUAK – ESKAERA BERRESTEA

Remiro Esnoz alkateak jakinarazi du bidezkoa dela Basarteak idatzitako eta epearen barruan aurkeztutako 2025-2026 aldiko mendiko bazkalekuen proiektua berrestea.

Aho batez erabaki da Erroibarko herrilurretan 2025-26 kanpainan egin beharreko Mendiko Bazkalekuen proiektua berrestea eta garaiz eta behar bezala aurkeztea horretarako argitaratutako laguntza deialdira; proiektuaren aurrekontua 13.800,00 € gehi BEZa da.

6. MGLEE BERRIAN PARTE HARTZEKO ERABAKIA

Remiro Esnoz alkateak hartu du hitza eta esan du osoko bilkura honetan proposatzen duela Udalak MGLEE, Mugaz Gaindiko Lankidetzarako Europako Elkartea izeneko mugaz gaindiko egitura horretan parte hartzeko duen borondatea dela. MGLEE Poctefetatik datorren proposamena da, izan ere Poctefa hainbat proiektutan mugaz gaindiko lankidetzak da, eta oraingoz Udalak ez du horretan parte hartu. Elkarte hori (MGLEE) sortuz gero, egitura egonkorrago bat sortzen lagunduko litzateke, eta ez soilik deialdia eginez, bi mugetako erakunde mugakideen arteko nazioarteko harremanak sendotzeko modua bilatuz. Lankidetzak mota honetan aritu diren entitateek orain arte Poctefa proiektuetan aritu ez diren entitateekin harremanetan jarri dira, hala nola gure Udala, Aurizkoa, Luzaidekoa, etab.

Elkarte honetako kide izan nahi den ala ez erabaki ondoren, elkarte hori arautuko duten estatutuak landu eta, hala badagokio, onartu behar dira. Estatutu horien zirriborroa bilkura honetako espedienteari erantsi zaio. Datorren astean bilera bat egingo da, erakundeek egindako ekarpenekin behin betiko estatutuak idazteko. Estatutu horiek, hitzarmenarekin batera, MGLEEda osatzen duten toki-erakunde guztiek onartu behar dituzte.

Osoko bilkuraren espedientearen erantsi den gutunari dagokionez, honelako elkarteak sortzeko prozesuan MGLEEko kide izan nahi duten toki-entitate guztiek eskaera bat aurkeztu behar

dute Lurralde Politikako Ministerioan, eta Frantziako erakundeek, berriz, Frantzian duten baliokidean

Elkartearen sorrera Kaizen enpresak kudeatuko du.

Udalbatzak erabaki du aho batez Erroibarko Udala MGLEEri atxekitzea.

7.- BERDINTASUN ZERBITZUKO HITZARMENA BERRITZEKO ERABAKIA

Remiro Esnoz alkateak hitza hartu du eta jakinarazi du zerbitzuan sartuta dauden entitateek sinatu zuten hitzarmena 2025eko maiatzean iraungi zela. 2025eko irailean berriro elkartu ziren entitate guztiak, Hiriberri izan ezik –une honetan batzorde kudeatzaile batek gobernatzen du–, hitzarmen hori beste 3 urtez berritzea adostuz.

Jakinarazi du berriro jarri direla harremanetan Luzaide, Orreaga eta Aurizko Udalekin, zerbitzuan parte hartzera gonbidatzeko. Luzaideko Udalak ezetz erantzun du eta beste biek ez dute oraindik ezer esan.

Bidaurreta zinegotziak hartu du hitza eta kontratua beste hiru urterako berritu daitekeen galdetu du. Alkateak erantzun du berriketa hitzarmenaren gainean dela, ez kontratazioaren gainean, eta hori 2027ko hauteskunde urtea saihesteko asmoarekin, erabakiak hartzea izugarri zailtzen baitu. Gaurko teknikariaren kontratua hiru urtera iristen denean, lanpostuarekin zer egin erabaki beharko da.

Garralda zinegotziak hartu du hitza eta orain arte egindako lan eta proiektuei buruz eta INAIren Zerbitzuak onartutako laguntza ekonomikoaren ehunekoei buruz galdetu du; izan ere, zazpi urtean laguntza desagertu egingo da, aurtun dagoeneko %70ekoa da. Jimenez Rey zinegotziak azaldu du NABIk egiten denaren txosten exhaustiboa eskatzen duela, eta berdintasun agenteak prestatzen duela, egindako guztia jaso. Estatu Itunaren gastua kudeatzen du, hainbat ekintza eta formazioarekin, hala nola “Emakumeen ahalduntzea” eta “kontrapasa” gizon taldea, hori ere Zerbitzuak zuzendua; zainketen diagnostikoa; ematen diren eta indarkeriarekin zerikusia duten zerbitzuak jasotzen dituen liburuxka morea; Erroibarren eta Artzibarren indarkeria protokoloa koordinatzeko mahaietan parte hartzea; udako kanpaina; etab

Nolanahi ere, hitzarmena berritzeko bilerarako, berdintasuneko agenteak horri buruzko dokumentu bat prestatu zuen eta Remiro Esnoz alkateak udalkideei helaraziko die. Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da Berdintasun Zerbitzuaren hitzarmena berritzea.

Garralda zinegotziak NABIren laguntzaren ehunekoari buruz galdetu du. Idazkariak erantzun du orain %70 dela, eta alkateak gaineratu du zerbitzuak 7 urte dituenean laguntza desagertu egiten dela eta udalek mantendu eta ordaindu behar dutela zerbitzua %100ean.

Aho batez onartu da berdintasun zerbitzua emateko udalen arteko hitzarmena berritzea, hiru urterako.

8. GALTZADA ERROMATARRAREN PLAN GIDARIAREN HITZARMENARI BURUZKO ERABAKIA

Jimenez Rey zinegotziak hartu du hitza eta jakinarazi du Cedernaren ekimen bat dela, eta dei egin ziela Erromatar Galtzada zeharkatzen duten erakunde guztiei: Luzaide, Auritz, Erroibar, Aurizberri, Artzibar, Longida eta Agoitz. Proposatu zuen Aranzadi Zientzia Elkartek galtzada erromatarrarekin zerikusia duten jardueren kudeaketari buruz prestatzen ari den azterlana PSTDri aurkeztea. Hasiera batean proiektuak %100eko dirulaguntza jasoko luke. Aho batez erabaki da proiektuarekin bat egitea eta erabakia Cedernari helaraztea.

9. LANPOSTUEN DEIALDIAK: ZERBITZU ANITZETAKO LANPOSTUA (GARBIKETA LANALDIA % 43,63)

B. ZERBITZU ANITZETAKO LAPOSTU FINKOA JARRAIGABEA

Remiro Esnoz alkateak hitza eman dio Marisol Ezcurra idazkariari, eta honek jakinarazi du hiru urte igaro direla jada Udalaren instalazioetarako garbiketa postua behin-behinean kontratatu zenetik. Lanpostua egiturazkoa da, Udalaren plantilla organikoan horrela jasotzen baita; beraz, bidezkoa da lanpostua oposizio-lehiaketara ateratzea, lan-kontratu finko baten bidez Gauza bera gertatzen da izaera finko jarraigabeko Zerbitzu Anitzetako Lanpostuarekin, kontratazioko hiru urteak igaro baitira, eta bidezkoa da lanpostua lan-kontratu finko baten bidez ateratzea, martxotik azarora, bi hilabeteak barne.

Aho batez erabaki da onestea Erroibarko Udaleko garbitzaile izateko lanpostu bat eta Erroko Udaleko brigadako zerbitzu anitzetako enplegatu izateko lanpostu bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdiak arautzen dituzten oinarriak, biak ere lan-kontratudunak.

10. LANDA EREMUKO EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA – URRIAK 15

Udalbatzak erabaki du aho batez honako mozioa onartzea:

Landa eremuko emakumeak, Nafarroako politikaren bazterretik erdigunera

“Landa eremuko emakumeak, Nafarroako politikaren bazterretik erdigunera” lelopean, berdintasun-teknikariak bertze urte batez koordinatzen dira landa-inguruneko emakumeen izenean ahotsa altxatzeko. Mezua argia da: Nafarroako herriek landa eremuko emakumeen ahotsak entzutea eta kontuan hartzea nahi dute.

Adierazpenean salatu dutenez, egungo plangintza politikoak ez du kontuan hartzen lurraldeko bizimoduari eusten dioten milaka emakumeren errealitatea. “Ez gara gutxiengo bat, ezta salbuespen bat ere; ezinbestekoak izan ginen eta gara gure herrien orainerako eta etorkizunerako”, azpimarratu dute. Gainera, hirietan baliabideak eta erabakiak biltzen dituen “logika urbano-zentrikoa eta patriarkala” kritikatu dute, landa-eremutik periferiara baztertuz: “Gure herriak ez dira bigarren mailako lekuak: emakumeok bizkarrezur ditugun ekosistemak dira”.

Desberdintasun iraunkorra: beren kabuz hitz egiten duten datuak

Nahiz eta Nafarroako emakumeen %28k unibertsitateko ikasketak izan (gazteen %46k), gizonen %20,1en aldean, haien soldatak %20 txikiagoak dira. Landa-eremuan, %9,4k lanbide tekniko edo zientifikoetan egiten du lan, eta %6,1ek nekazaritzan, baina nekazaritza-ustiatuegien %28 baino ez dira emakumeak, eta %17k baino ez dute emakumeek zuzentzen.

Kanpainaren sustatzaileen arabera, egoera horrek agerian uzten du “aprobetxamendurik gabeko talentua eta egiturazko desberdinkeria, legeak eta egungo politikek zuzentzen ez dutena, landa eta genero ikuspegirik ez dagoelako”.

Landa-politika eraldatzeko hainbat helburu planteatzen dira: hiri-erdiguneko eredia gainditzea, genero-ikuspegia eta ikuspegi intersektionala aplikatzea, landa-eremuko emakumeak garapen-eragile gisa aitortzea, lurralde guzietan oinarritzko zerbitzuak bermatzea, berdintasun-irizpideekin inbertitzea eta landa-agenda feminista indartzea.

2025eko Emakume Landatarraren Egunerako teknikarien aldarrikapenaren ardatz nagusia: politika eta programa aunitzek ez dituzte kontuan hartzen landa-ikuspegia eta genero-ikuspegia. Hiri testuinguruetarako pentsatutako legeak, arauak edo ekimenak dira, eta, ondorioz, ez dira zentralak, ez dira nahikoak edota kaltegarriak dira herrietan.

“Izendatzen ez dena, ez da existitzen; ikusten ez dena, ez da zaintzen”. Baieztapen horrekin, Berdintasun teknikariek gogorarazi dute landa eremuko emakumeei ahotsa ematea demokrazia, justizia eta etorkizuneko kontua dela.

Nafarroako toki- eta lurralde-erakundeak landa-inguruneko herri guztiek osatzen dituzte, eta, horietatik guztietatik, bertan bizi diren emakumeen ahotsa entzutea nahi dugu, gure lurraldeen orainerako eta etorkizunerako ezinbestekoak izan baitira beti eta izaten jarraitzen baitute.

2025eko Landa Eremuko Emakumeen Egun honetan, bere lekua eskatzen dugu erabakiak hartzeko orduan, politika publikoak diseinatzeko eta aplikatzeko moduak ez baititu aintzat hartzen haien errealitateak, beharrak eta ekarpenak. Landa-herriak ez dira bigarren mailako lekuak, emakumeak funtsezkoak diren ekosistemak baizik, eta ohartarazten da logika hiritar-zentriko eta patriarkalak baliabideak eta zerbitzuak biltzen dituela hirietan, landa-eremua zokoratuz eta emakumeei bereziki gogor eragiten dieten desberdintasun estrukturalak sortuz. Izendatzen ez dena ez da existitzen, eta ikusten ez dena, ez da zaintzen.

Landa eremuko emakumeek diskriminazio modu anitzak aurrez aurre jartzen dituzte: emakume izateagatik, herrietan bizitzeagatik eta elkar gurutzatzen diren beste aldagai batzuegatik (adina, klasea, jatorria, aniztasun funtzionala, etab.). Horrez gain, bizi-baldintzak ere desberdinak dira, eta zailagoa da landa-ingurunean: enplegua, etxebizitza, garraioa... Gainera, ordaindu gabeko zainketetako lanaren gainkarga neurritz kanpoko da emakumeengan, haien bizi eta lan aukerak, lidergoa eta parte-hartzea mugatuz. Jakina, estereotipo patriarkalek ere badute beren zeregina: herrietan emakumeak “laguntzaile” kontsideratzen dituzte, baina ez jabe, ekoizle, kudeatzaile edo lider legítimo.

Nafarroako emakumeen % 28k unibertsitate-ikasketak dituzte (gazteen % 46k), gizonen % 20,1en aldean, baina haien soldatak % 20 txikiagoak dira, batez beste. Emakumeen % 9,4k lanbide zientifiko, tekniko edo espezializatueta egiten du lan, eta % 6,1ek nekazaritzan. Horrek adierazten du gaitasun-dibertsitate handia dagoela eta talentu hori guztia aitortu eta erabat aprobetxatu behar dela. Hala ere, nekazaritza-ustiatarien titularren % 28 baino ez dira emakumeak, eta, horietatik, % 17k baino ez du egiten ustiatarien buru gisa.¹ Fátima Cruz-Souza, Luis Camarero Rioja eta Elvira Sanz Tolosana, Informe técnico de las mujeres rurales en Navarra 2023 (NABIk 2023an sustatua).

Badira herrietako emakumeen testuingurua oztopatzen duten beste inguruabar batzuk ere: maskulinizazioa, zahartzea eta landa eremuaren despulazioa emakumeentzako, bereziki neska gazteentzako, aukera faltari lotuta daude. Eta indarkeria matxista herrietan existitzen da eta larriagotu egiten da isolamenduagatik eta baliabide publiko irisgarri eta espezifikoaren faltagatik.

Alde horretatik, berdintasunari buruzko 17/2019 Foru Legea eta Nafarroako Berdintasunerako Plan Estrategikoa, Landa Eremuko Emakumeen Estatutua sortzea aurreikusten duena, funtsezkoak dira ekitatean aurrera egiteko eta emakumeen funtsezko eginkizuna aitortzeko.

Argi dago politika publiko eta programa askok ez dutela kontuan hartzen ez landa-ikuspegia, ez genero-ikuspegia, hiri-testuinguruetarako pentsatutako legeak, arauak edo ekimenak direlako, eta, horregatik, ez dira garrantzitsuak ezta nahikoak ere herrietan eta kaltegarriak ere izan daitezke.

Horregatik, Nafarroako tokiko eta lurraldeko erakundeek Landa Eremuko Emakumeen Egunean premiazkoa eta beharrezkoa ikusten dugu helburu hauiek lantzea:

1. **Eredu hiritar-zentrikoa eta patriarkala gainditzea:** 3. Planifikazioa lurraldetasunaren aldetik orekatua eta inklusiboa den logika batetik birpentsatzea, lurralde guztiak eta emakume guztiak Nafarroaren garapenaren funtsezko zati gisa aitortuko dituen
2. **Politika publikoetan genero-ikuspegia eta ikuspegi interseksionala txertatzea:** Genero- eta landa-ikuspegiko legeak diseinatzea eta martxan jartzea, herrietako emakumeen iraupena eta autonomia ziurtatuz. Hori bereziki garrantzitsua da landa-garapenari, despopulazioari, berdintasunari, iraunkortasunari edo lurralde-kohesioari buruzko arauetan.
3. **Landa eremuko emakumeak eta emakumeen elkarteak garapenaren eragileatzat aitortzea:** kulturaren eta bizitza komunitarioan, elikadura-subiranotasunean, jakintzen transmisioan eta lan erreproduktibo nahiz produktiboan duten zeregin estrategikoa baloratzea.
4. **Lurralde guztietan oinarritzko eskubideak bermatzea:** Zerbitzu publiko egokituak eta kalitatezkoak (osasuna, hezkuntza, zainketak, etxebizitza, konektibitatea, garraioa, kultura, parte-hartze politikoa), genero-indarkeriari aurre egiteko baliabide eskuragarriak barne.
5. **Landa eremuan modu bidezkoan inbertitzea** ezinbestekoa da landa-eremuak behar bezala finantzatzea. Berdintasunaz hitz egitea ez da nahikoa: sustatu egin behar da, herri bakoitzean, erabaki bakoitzean, aurrekontu bakoitzean.

Eta hori guztia agenda feminista eta landatar batekiko konpromisotik abiatuta, lurralde bakoitzeko errealitatearekin bat. Izan ere, hiri erdiguneko ereduak gainditu eta genero ikuspegiarekin egitea demokrazia, justizia eta etorkizun kontua da. Emakumerik gabe ez dago landa-eremurik, eta landa-eremurik gabe ez dago etorkizunik.

11. INDARREAN DAGOEN ADIKO BAZKALEKUEN APROBETXAMENDUAREN ESLEIPENARI UKO EGITEA

Remiro Esnoz alkateak hartu du hitza, Kintoko Mankomunitateak kudeatzen dituen “indarrean dagoen Adiko larreen aprobetxamenduaren esleipenari uko egiteko” Gobernu Taldearen proposamenaz hitz egiteko. Proposamen hori joan den maiatzaren 14ko bilkuran aurkeztu zen. Bilkura horretan, lurraren titulartasunaren eta Adiko larreen aprobetxamenduko konpententzien kontzeptuak azaldu ziren, baita lizitazio prozesuen aurrekariak eta Udalak 2022an onartu zuen tramitea ere, honako proposamen hau planteatuz:

Gobernu Taldeak uste du Erroibarko Udalak ez duela baliabide publikorik inbertitu behar larreen errentamenduetan, normaltasunetik kanpoko egoera dela uste baitu, eta lehengoratu egin behar dela. Hori dela eta, esleipen horri uko egiteko erabakia ekarri dute osoko bilkurara, Udalaren eskumenekoa ez den zerbaitetan baliabideak inbertitzeari uzteko, Udalak ez baitu abeltzaintzako ustiapenik.

Akta horretan bertan jasotzen da, halaber, Gobernu Talde honek zioela Udalak hainbat motatako neurri ugariarekin lagundu dezakeela, herri-lurra eskura jarritz, zainduz, etab., baina uste du ez dagoela inola ere justifikatuta baliabide publikoak erabiltzea besteren larreak errentan hartzeko, kasu honetan bezala, Adiko larreen aprobetxamenduaren eskumena Kintoko Mankomunitateari dagokionean. Akta horretan bertan adierazten denez, gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da gaia mahai gainean uztea eta erabakia iraileko bilkurara atzeratzea, baina irailean bilkurarik egin ez denez, eta urrian egin denez, bilera horretan berriro aztertzen da gaia. Beraz, maiatzean hitz egin zen bezala, Gobernu Talde honek indarrean dagoen esleipenari uko egiteko proposamen bera ekarri du berriro. Uste du, orduan esan zen bezala, badirela beste modu batzuk sektorearen beharretarako irtenbideak bilatzeko, sartzeko modu desberdinak bilatzeko edo Kintoko Mankomunitateari proposatzeko esleipen modua alda dezala, Nafarroako Toki Entitateen Ondasunen Erregelamenduak ahalbidetzen digun bezala. Kontuan izan behar da Mankomunitateak ez duela herrilurren ordenantzarik, baina horrek ez du baztertzen, behin akordio hau hartuta, lanean jarraitzea sektoreak behar dituen konponbideak eta hobekuntzak bilatzeko, baina ezin dira baliabide publikoak larreen aprobetxamenduaren esleipen batean gastatu.

Bidaurreta zinegotziak adierazi du eta berriro esan du bere taldearentzat ez dela errentamendua edo, behintzat, ez zela helburu horrekin egin, baizik eta Sorogainen sartzeko eta larre horiek kudeatu ahal izateko egin zela, eta ez dago ados haiei uko egiteko proposamenarekin.

Gaia eztabaidatu ondoren bozketa egin da eta emaitza hau izan da: aldeko hiru boto (Jiménez Rey, Zaldúa Ortiz de Guzman eta Remiro Esnoz) eta aurkako hiru boto (Bidaurreta, Garralda eta Gil). Berdinketa dagoenez, alkateak kalitatezko botoa erabili da eta, boto horrekin, gehiengoz onartu da Gobernu Taldeak proposatutako eta indarrean dagoen Adiko larreen aprobetxamenduaren esleipenari uko egiteko proposamena, eta Kintoko Mankomunitateari helarazi zaio erabakia, jakinaren gainean egon dadin eta dagozkion ondorioetarako. Remiro Esnoz alkateak erantsi du Kintoko Mankomunitatean Adiko larreak esleitzeko moduari buruzko hausnarketa bat egitea eta sektore horrek Erroibarko udalerrian larreak aprobetxatzeko formula bat bilatzea planteatuko duela.

12. ETI TALDEAREN PROPOSAMENA - ADIKO BAZKALEKUAK

Bidaurreta zinegotziak hartu du hitza eta aurkeztutako proposamena irakurri ondoren, honako hau dio:

“ETI taldeak gure udalerrian dauden Kintoko hektareak sartu ahal izateko egiten ari den azterlanari dagokionez, jakinarazten dizuegu uste baino denbora gehiago kostatzen ari dela; izan ere, duen lanaren, harremanetan jarri beharreko pertsonen eta udako denboraldia tartean, uste baino zailagoa izaten ari da.

Hori dela eta, Udalarri eta, hala badagokio, Kintoko Mankomunitatean Udalak duen ordezkariari proposatzen diogu eska diezaiola Adiko larreen enkantea gelditzeko, gutxienez azterketa gauzatu arte, eta balio dezala udalerri honetan dagoen abeltzaintza arazoari irtenbidea emateko.

Era berean, proposatzen dugu 2026ko aurrekontuetan aurrekontu-partida bat sortzea, azterketa horren gastuari aurre egiten laguntzeko. Bitartean, honako hau planteatzen dugu:

- Udalak Kintoko Mankomunitateari Adiko larreengatik ordaintzen jarraitzea, abeltzainen gastuaren aurrerapen gisa, haiek Sorogaingo larreengatik ordaintzen duten kuotarekin itzultzen baitute diru hori.

- Udalak adostu dezala abeltzainekin Kintoko Mankomunitatearekin hitzarmen bat egitea Adiren aprobetxamenduaren kostua kudeatzeko, kostu hori aurreratuz, eta konpromisoa har dezala abeltzainek ALUko ezarritako kuotaz gain beste hainbeste ordaintzeko, gastu hori estaltzeko.

*Adibidea: 1 ALU 33€ kuota
1 ALU 3€ Adiko gastua
GUZTIRA 36 € ALU bakoitzeko”*

Proposamena irakurri ondoren, Bidaurreta zinegotziak azaldu du, Garralda jaunak azken bilkuran esan zuen bezala, Baztanek Kintoko hektareekin egin duenaren azterketa egin nahi zutela, gure udalerrian dauden Kintoko hektareak Erroibarko poltsan sartzeko modua ikusteko. Asko kostatu da Baztango ordezkariekin harremanetan jartzea, baina azkenean elkartu ahal izan ziren eta nola egin zuten azaldu zieten, ez zeuden guztiz ziur Kinto hektareak sartzen jarraituko zuten ala ez, baina atzo baieztatu zieten baietz, Baztango poltsa komunean dituztela oraindik ere, eta barruan dituzten partzela guztiak jakinaraziko dizkigutela. Hori dela eta, azterketa bat egin behar bada zer lursail erabil daitezkeen jakiteko, bere taldeak eskatu du aurrekontuan gastu horri aurre egiteko zenbateko bat aurreikusten duen partida bat egon dadila. Larreak enkantera ateratzeko geldiarazteko eskaerari dagokionez, indarrean zegoen akordioa sinatu arte, Mankomunitateak horrela funtzionatzen zuelako da, herrilurra zen guztia enkante bidez esleitzen zuelako. Remiro Esnoz alkateak hartu du hitza eta erantzun du Baztango Udala, Enekorriko larreak, Kinton Udalak dituen larreak, Erroibarko lurretan dauden eta Kinto Realek kudeatzen dituen Adiko larreen adibide paralelo gisa, orain arte ziurtatutako hektareen poltsan sartu direla, Frantziako herritarrei errentan eman zaizkienean, Udal honetako Adiko larreak bezala, Frantziako herritarrei errentan ematen zitzaizkielako sartu baitira poltsara. Larreak estatu espainiarreko herritarrei ematen zaizkienean ez dira poltsan sartzen. Aurten egin den Enekorriko larreen azken esleipena Elbeteko pertsona bati esleitu zaio eta, beraz, ez dira poltsa komunean sartuko. Azken batean, Baztango Udalak, Kintoko Mankomunitateak kudeatzen dituen larreen hektareak Gobernu Taldea antolatzen ari den bezala kudeatzen dituela.

Garralda zinegotziak erantzun du, Enekorritik aparte, Baztanek beste partzela asko sartzen dituela poltsan, adibidez iparraldeko isurialdeko guztiak. Alkateak erantzun du Udal honek ere sartzen dituela, eta Garralda jaunak ezetz erantzun dio, hegoaldeko zatikoak sartzen dituela;

alkatea ez dago ados eta Udal honek ziurta ditzakeen hektareen ziurtagiria aterata egiaztatu ahal dela dio. Berriz ere Bidaurreta zinegotzi andreak hartu du hitza azaltzeko egin nahi den azterketa dela inon sartuta ez dauden Kintoko lurraldean PACerako balioko duten hektarea gehiago lortzeko. Alkateak erantzun du gaia dela Baztanek nola kudeatzen dituen Kinton dituen larreen aprobetxamendua eta lurralde horietako hektareak, eta Udal honek 2022ra arte egiten zuen bezala egiten duela. Nolanahi ere, Bidaurreta zinegotziak aipatu duenak ez du Adirekin zerikusirik, eta, hain zuzen ere, azter daiteke eta irtenbideak bilatzen saia daiteke, horretan denak ados egonda. Bidaurreta zinegotziak erantzun du, Adiko larreei dagokienez, 2022an, hektarea eta larre horiek Sorogaingo abeltzainek aprobetxatzeko akordio batera iritsi zirela, eta hori izan zela Sorogaineko hektareak ez kentzeko bilatu zen irtenbideetako bat, eta denentzat izatea, ez bakarrik enkantea har zezakeenarentzat, baizik eta denentzat. Remiro Esnoz alkateak esan du irtenbide hori lortzeko baliabide publikoak erabili behar zirela, eta horrek ez duela inolako logikarik, eta Gobernu Taldea ez dagoela ados, Udal honek ez baitu inolako eskumenik abeltzaintzako ustiapenean. Udalak ekintzak eta azterlanak egin ahal izango ditu, eta herri-lurrak hobetzeko aukerak planteatu, adibidez, Ardaitzen, komunalak hamar urte baitaramatzate esleitu gabe, baina ezin duena da diru publikoa inbertitu larreen aprobetxamendurako esleipen bat ordaintzeko. Bidaurreta zinegotziak adierazi du Udalak abeltzaintzako ustiapenean eskumenik ez badu ere, eskubidea duela bere herri-lurretan. Bere ustez, hartutako erabakia laguntza mota bat zen, eta Ibarrean ematen diren laguntza guztiak diru publikoaren bidez ematen dira, alokairu gisa ulertu gabe, eta alkateak erantzuten dio ez dutela zerikusirik. Zaldua zinegotziak hartu du hitza eta esan du afera ez dela diru publikoa erabiltzea baizik eta nola erabiltzen den. Gil zinegotziak hartu du hitza eta galdetu du ikasleen garraio-zerbitzuaren dirua aurreratzen denean inbertsioa den edo zer den, diru publikoa ere badelako eta ez duelako desberdintasunik ikusten, eta arrazoi bat bilatu beharko dela dio. Bidaurreta zinegotziaren ustez, bi laguntza mota dira, sektore bati modu batean laguntzen zaio eta beste sektore bati beste batean, ezberdinak, baina bi laguntza mota, eta, noski, ez du errentamendu gisa ikusten. Alkateak erantzun du kontua ez dela nola ikusten den, baizik eta zer den. Zinegotziak erantzun du larre eta hektarea horiek kudeatzeko esleipena dela. Alkateak berriz ere hitza hartu du, eta adierazi du guztiek nahi dutena dela hausnarketa-prozesuak bilatzea konponbideak bilatzeko, eta, hain zuzen ere, Kintoko Mankomunitateari adjudikazio-modua aldatzea proposatuko diote, eta Bidaurreta zinegotziak eskatu du eskaera hori egin eta Mankomunitateak laguntzeko beste modu bat bilatzen duen bitartean, indarrean dagoen esleipenari uko ez egitea. Remiro Esnoz alkateak ezetz erantzun du, alokairuari uko egin behar zaiola eta Mankomunitateak erabaki behar duela Adiko larreak enkantera aterako dituen ala auzo-aprobetxamenduz esleituko dituen, Mankomunitateak baitu eskumen hori. Hau bide bat izan daiteke edo beste batzuk egon daitezke.

Gaia eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta emaitzak hauek izan dira:

ETI taldearen proposamenaren aurkako hiru boto (Jiménez Rey, Zaldúa Ortiz de Guzman eta Remiro Esnoz) eta aldeko hiru boto (Bidaurreta, Garralda eta Gil). Berdinketa dagoenez,

alkatearen kalitatezko botoa erabilita, gehiengoak ez du onartu ETIk Kintoko hektareen kudeaketa eta esleipenari buruz aurkeztutako proposamena.

13. ASKOTARIKO INFORMAZIOA

Idazkariaren egoera pertsonala dela eta, aho batez erabaki da gaia hurrengo ohiko osoko bilkurarako uztea.

14. ESKAERAK ETA GALDERAK.

Remiro Esnoz alkateak jakinarazi du aurreko puntuan aipatutako arrazoi berberarengatik, galderak idatziz erantzungo dituela.

Bidaurreta zinegotziak hitza hartu du eta galdetu du, alde batetik, Amavir egoitzaren gaiari buruz, zein fasetan dagoen, eta, bestetik, Txangoako larreei buruz, ea ongarritu diren eta errentamenduaren jarraipena egiten den eta ea errentariak baldintza-agirian jasotako betebeharrak betetzen dituen. Garralda zinegotziak dio berak jarraipena egin duela eta ez dela baldintza agiria betetzen ari, uztailean, abuztuan eta irailean frantses azienda sartzen ari baita. Alkateak hitza hartu du eta laburki azaldu du Amavir egoitzaren egoera kontzejuen bileran partekatu zela, nola dagoen jakin zedin, eta bihar horren inguruko bilera garrantzitsu bat izango dela, eta gainerako azalpenak idatziz emango direla. Txangoari dagokionez, jakina da ez dela behar bezala erabiltzen ari, eta baldintza-orria berrikusi eta maizterrarekin bilera bat egin behar dela.

Eta gai gehiagorik ez zegoenez gero, bilkurari bukaera eman zaio egun bereko 18:20an, eta nik neuk akta idatzi eta fede eman dut.